

Euskaldunak eta baskoak

Udaberrian egin ez zen Aulestiko Ar-
tedramaren antzerki
jaialdia atzo
amaitu zen. Pandemia, arrangu-
ra eta ziurgabetasuna ez dira de-
sagertu. Hor ziren, une oro, gure
arte. Baina begiradetan ez zi-
ren horiek soilik ikusten. Ekital-
dien izenburuak ez ziren hauek.
Gai anitz atera dira: maitasuna,
ahizpatasuna, drogaren sarraskia
gure herrian, ostatuko plazerak,
euskal kantuen indarra jendarte-
an, aspaldiko lagunak... eta herri-
tarrek erakutsi dituzte lurraldea-
rekin duten atxikimendua, eta
etorkizunari begira egin dituzten
promesak eta proiektuak. Areto-
ak mukuru bete dira. Euskaldun
bezala, mundua parez pare begi-
ratzeko aukera eskaini zaigu,
persona eta komunitate gisa
izan gara nor eta norekin. Mun-
duan eta bizitzan kokatzeko une
bat izan da. Opari bat.

Ea elkar ulertzen dugun: zerk
egiten gaitu euskaldun? Hizkun-
tzak, ez? Eta zerk bermatzen digu
euskaldun bezala bizi edo existitu
gaitezkeela? Euskaraz bizitzeko
aukerak, pentsatu
gabe «hau euskaraz
da»: horra euskaldu-
non eguneroko erro-
nka. Eta pandemiak ge-
rozitik are gehiago. Ze-
hazteko, euskara ez da
gramatika mulzo bat.
Euskara maitasuna-
ren hizkuntza da,
haurrak ohera erama-
tekoa, ospitalean lagunari azken
agurra ematekoa; eguneroko bo-
rroken, lanen, arranguren eta
ametsen hizkuntza da. Posibleen
hizkuntza.

Mundua marrazteko zein ko-



Jende ugari bildu da egunotan Aulestin egindako topaketetan. AINHOA RESANO

munitatea eraikitzeko, herrigin-
tza eta naziogintzaren giltza da
euskara. Eta hortik ulertzen da
abertzaletasuna. Abertzale izatea
ez da lurralde admini-
stratibo baten,
mendien, edo pin-
txo-potearen zain-
dari suitsuarena egi-
tea. Hori baskismoa
deitzen da. Aber-
tzaletasunak ko-
munitatearen mai-
tasuna, elikatzea
eta urreztatzea supo-
satzen du. Eskubideen ikuspun-
tutik pentsatzen badugu, diru la-
guntzen sistema ez da artisten
edo eragile kulturalen diruzta-
tzea. Diruz laguntzen denean
obra bat edo ekipo bat, lehen le-

henik ikuslea da laguntzen. Ikus-
le bakoitzari dagokion diru la-
guntza ematen zaio bere komu-
nitatearekin artelan bat parteka
dezan. Zentzu horretan, zenba-
kiek erakusten dute Euskal He-
rriaren frantses, espainiar edo eus-
kaldun batek ez dutela balio bera.
Herritar euskalduna bigarren
mailako herritar gisa kontsidera-
tua eta tratatua da.

Baina eskubidearen ikuspegi-
tik urrunago, zaintzatik pentsa-
tzeko premia ere bada. Noski,
agiri ofizial guziak euskaraz ere
eskuratzea beharrezkoa dela.
Horrek existitzeko eskubidea
ematen digu, baina ez bermea,
ezta tresna ere. Ez baitigu ames-
teko, kexatzeko, pentsatzeko ala
maitatzeko eredurik ematen.

Material hori, euskara erabiltzen
duen arteak hazten du.

Kultura, hizkuntza komunita-
te baten praktika bat da: espe-
rienzien metaketa, jakintzaren
transmisioa, erreferentzia pro-
pioak, eztabaidak, inork konta-
tzen ez duen gure historia, gure
pentsamendua garatzeko eta eli-
katzeko tresna eraginkorra. Fun-
tsa hau da.

Zertan da egoera? Urte baka-
rrean, Iparraldean, gutxi gorabe-
hera 250 antzezlan ikus ditzake-
gu frantsesez eta hamabost bat
euskaraz, 200 film frantsesez eta
bat edo bi euskaraz, eta abar, eta
abar... Kontatu gabe telebista edo
Internet. Eta Hegoaldean ez gara
askoz hobe bizi. Euskaraz sortzen
dugunok badakigu frantsesez

edo gaztelaniaz sortzen dutenek
baino baliabide eta diru gutxiago
eskuratuko ditugula botere pu-
blikoetatik (edozein izanik ere).
Gure *partikularismo* onartuekin,
jaialdieta sail apartekoekin, ze-
ren frantsesak eta espainolak, ja-
kina den bezala, irekiak dira, eta
euskaldunak, aldiz, itxiak eta ko-
munitaristak.

Zer da horren ondorioa? Eus-
kaldun gehienok gure emozioak
eta funtsezko pentsaerak frantse-
sez edo gaztelaniaz adierazten di-
tugula. Intimitaterik ez dugu
adierazten ahal gure hizkuntzan.
Elbarritu emozionalak bilakatu
gara.

Mundua gure esperientziatik
eta gure hitzekin ulertzea ukatua
zaigu, arazoak gure mintzairatik
neurtzeko ahalmen gutxi dugu,
eta inposatuak zaizkigun eske-
mak edo doktrinak irensten eta
onesten ditugu. Belauniko eta
ulerkor.

Baina okerrean da pandemia-
ren ondorioz pasilloen artean zu-
rurruru sinesgaitzak entzuten
ditugula. Han eta hemen aipa-
tzen hasia da murrizketak egingo
direla, kultura beste arloetan
bezala. Baina ez gaitzen gezu-
rretan ibili, gure lurraldean kul-
turak pandemiak gain murrizke-
tak jasan behar baditu, euskal
kultura, euskal komunitatea eta
euskara bera desagertuko dira.
Zeren jakina da (2020az ari naiz)
Frantziak bi bilioi euro inbertitu-
ko dituela frantses kulturaren, Net-
flixek hainbat serie eta film egin-
go dituela ingelesez, AEBetako
armada hainbat egoizpen egiten
ari dela zineman... Murrizketak
ahuldurik dagoen euskal komu-
nitateari labankada bat emango
dio bizkarrean, eta sarraski kul-
tural baten mesederako izango
da.

Beraz, euskal komunitateak
aurrekontuak hurbiletik begiratu
beharko ditu haren biziraupena
inportantea ote den jakiteko. Ar-
gitu beharko da diskriminazio
positibo eraginkor bat martxan
jartzen den, eta ondasun «im-
material» deitzen duten hori
material bihurtzen utziko digu-
ten: antzezlan, film, disko, libu-
ru... Zeren kontaktan badakigu.
Atera daitezela zifrak, orduan
euskaldunok jakinen dugu zein
den ekinza politiko eraginkorre-
na, eta ikasiko dugu bereizten,
izen-abizenek ere, abertzaletasu-
na eta baskismoa.



LAUHAZKA
Ximun Fuchs

berriaguna



2000. urteaz geroztik, barne dekorazioan,
zaharberitze eta proiektuetan elkarlanean
dihardugu gure bezeroekin.

Santa Marina plaza 4 • 20560 ONATI • Tel.: 943-78 36 80 • baruekua@gmail.com

CORTABARRIA
Blanca E. Kortabarría

GESTORE ADMINISTRATIBOA
ETXEBIZITZEN AGENTEA

Kale Barria, 42 • 20560 ONATI • Tel./Faxa: 943-78 05 87
info@cortabarría.com

